

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

HIRU HAMABI ELKARTEA

Ane Pirata eta Patakon gaur festetara joan dira. Tiobibo ugari daude eta Ane berehala animatu da salto egitera.





ZURE ALABA NIRE TANKERAKOA DA,
ALFER SAMARRA ZAPATILLAK LOTZEKO...

EZ DA ALFERRA,
BERRIZ IKASTEN ARI DA ZAPATILLAK LOTZEN
ETA LAGUNTZA BEHAR DU.

BERRIZ IKASTEN
ARI DA?



NIK LEHEN EDERKI NEKIEN LOKARRIAK LOTZEN,
BAINA GAIXOTASUN BAT IZAN NUEN BURUAN
ETA GAUZA ASKO AHAZTU EGIN ZAIZKIT.

SENTITZEN DUT,
EZ DIZUT EZER IGARRI...

GARUNEKO KALTEA
MAIZ IKUSEZINA DA,
KANPOTIK IGARTZEN EZ DENA.

ETA PIRATA
ZAHARROK MAIZ AHOHANDIAK
IZATEN GARA...





Garuneko kaltea jasan duten adin txikikoen familiek osatzen dute Hiru Hamabi elkarte, estatuan haurren arazo horren bueltan sorturiko lehena. Haurrek eta beren familiek bidean topatzen dituzten zailtasunak samurtzea da elkartearen helburua.



Garuneko kaltea jasan duten 16 urtetik gorako pertsonak osasun sare publikoan eskura dituzte zenbait baliabide, 16 urtetik beherakoek, ordea, ez. Elkarte baliabide horiek haurrengana ere irits daitezten borrokan ari da.



Garuneko kaltea maiz ikusezina da, lehen begiratuan igartzen ez dena. Horregatik zailagoa da jendarteak kalte horren nekeak eta zailtasunak ulertzea. Horretan ere egiten du lan elkarteak.

info@hiruhamabi.org
619370126